2024ZAUN0121

DARIO DE REGOYOSEKO ESKALILERA MEKANIKOEN IGOTZEKO TARTE LUZEAREN MAILA KATEA ALDATZEKO LANEN KONTRATAZIOA

CONTRATACIÓN DE LOS TRABAJOS DE SUSTITUCIÓN DE LA CADENA DE PELDAÑOS DEL TRAMO LARGO DE SUBIDA DE LA ESCALERA MECÁNICA DE DARIO DE REGOYOS

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	OBRA, MANTENTZE ETA AZPIEGITURA ARLOA / ÁREA DE OBRAS, MANTENIMIENTO E INFRAESTRUCTURAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2024ZAUN0121

1.- AURREKARIAK ETA XEDEA

2007an eskailera mekanikoen instalazio bat jarri zen martxan Artia auzoan (IRUN). Instalazioak lau tarte dauzka: igotzeko eta jaisteko tarte labur bana Thalamas Labandibar eta Dario de Regoyos kaleen artean, eta igotzeko eta jaisteko beste tarte bana, azken kale horren eta Berrueta Pintorearen kalearen artean, luzeagoak.

Plegu honen I. eranskinean instalazioaren ezaugarri orokorrak jaso dira, taula batean.

Denbora igarota, aparatu horien osagaietako batzuen bizitza erabilgarria amaitu da, eta beharrezkoa da maila katea aldatzea Dario de Regoyos eta Berrueta Pintorearen kaleen arteko igotzeko tartean.

Bestalde, maila katearen egoera txarra dela eta, itzulerako gidaria higatzen ari da, eta beraz baliteke errodamenduak aldatu behar izatea.

2.- ELEMENTUEN DESKRIBAPENA

Puntu honetan deskribatzen da zer elementu sartzen diren kontratu honetan eta zer ezaugarri tekniko izan behar dituzten.

2.1.- MAILA KATEA

Denboraren, erabileraren eta kanpoko eragileen ondorioz, maila katean eta arrabolean deformazio batzuk agertu dira, eta desdoikuntzak, lasaierak eta zarata agertu dira. Horrela, mugimenduaren hasierako arintasuna galdu da, eta eskailerak ez dira erabiltzeko hain erosoak.

1.- ANTECEDENTES Y OBJETO

En el año 2007 se puso en marcha la instalación de las escaleras mecánicas del Bº de Artia (IRUN) que cuentan con cuatro tramos: de subida y bajada entre Thalamas Labandibar y Darío de Regoyos, más cortos, y de subida y de bajada entre esta calle y Pintor Berrueta, más largos.

En el anexo I del presente pliego se incluye un cuadro de las características generales de la instalación.

Debido al paso del tiempo, y a la finalización de vida útil de los elementos que conforman estos aparatos, es necesaria la sustitución de la cadena de peldaños correspondiente al tramo largo de la escalera de subida entre las calles Dario de Regoyos y Pintor Berrueta.

Por otro lado, el mal estado de la cadena de peldaños está provocando el desgaste de la guía de retorno, previéndose que pueda ser necesario sustituir los rodamientos de la misma.

2.- DESCRIPCIÓN DE LOS ELEMENTOS

En el siguiente punto se describe los elementos incluidos en el presente contrato y las características técnicas que deben cumplir.

2.1.- CADENA DE PELDAÑOS

Con el paso del tiempo, el uso y la acción de agentes externos, se producen deformaciones en los rodillos y cadena de peldaños, ocasionando desajustes, holguras y ruidos, perdiendo la fluidez inicial de desplazamiento con el consecuente deterioro del confort de uso.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)

Maila katea aldatuta jatorrizko geometria berreskuratuko da, eta ekipamenduaren jatorrizko erabilerarako arintasuna eta erosotasuna berreskuratuko.

Gainera, denbora igarotzearekin batera, lasaierak sortzen dira mailen oinarrian, eta mugimenduaren hasierako arintasuna galdu da. Maila katearen aldaketak arintasuna itzuliko dio ekipamenduaren mugimenduari.

Ekipamendua barrutik eta kanpotik garbitzea ere beharrezkoa da, eskailera mekanikoaren segurtasuna eta erabilgarritasuna handitzen dituelako.

Instalatuko den maila kate berriak eta muntaketa egokirako elementu osagarriak bateragarriak izango dira esku-hartzearen eskailera mekanikoaren ezaugarriekin. Plegu honen I. eranskinean jaso dira.

2.2.- ITZULERAKO GIDARIA - ERRODAMENDUAK

Katea gidari honen gainean dabil, eta mailak alderantzikatzea ahalbidetzen du.

Maila katea narriatu egin da igarotako denboraren, erabileraren eta kanpoko eragileen ondorioz, eta itzulerako gidaria ere higatu egin da. Hori dela eta, eskailera ez da erabiltzeko hain erosoa.

Instalatuko den itzulerako gidari berriak eta muntaketa egokirako elementu osagarriak bateragarriak izango dira esku-hartzearen eskailera mekanikoaren ezaugarriekin. Plegu honen I. eranskinean jaso dira.

3.- EGIN BEHARREKO LANAK

Dario de Regoyos eta Berrueta Pintorearen kaleak lortzen dituen igotzeko eskailera tartean egoera txarrean dagoen maila katea erretiratu behar da, eta beste berri bat hornitu eta instalatu, muntaketa egokirako gainerako elementu osagarri guztiekin batera. Azkenik, ekipamendu osoa doitu behar da, egoki funtziona dezan.

Bestalde, maila katearen egoera txarra dela eta, itzulerako gidaria higatzen ari da, eta beraz baliteke errodamenduak aldatu behar izatea. Lan horiek egin eta ordaintzeko ezinbesteko baldintza izango da gidari hori benetan egoera txarrean dagoela egiaztatzea, maila katea desmuntatu ondoren, baita horrek eskailera mekanikoaren funtzionamendu egokiari erasaten diola ere.

La sustitución de la cadena de peldaños permite recuperar la geometría original, devolviendo la suavidad y confort de uso originales al equipo.

Asimismo, con el transcurso del tiempo, se producen holguras en los asientos de los peldaños, perdiendo la fluidez inicial de desplazamiento. La sustitución de la cadena de peldaños devuelve la suavidad de viaje al equipo.

El saneamiento tanto interior como exterior del equipo, es una intervención necesaria que aumenta la seguridad y disponibilidad de la escalera mecánica.

La nueva cadena de peldaños a colocar, así como los elementos auxiliares para el correcto montaje de la misma deberán ser compatibles con las características de la escalera mecánica a intervenir y que están recogidas en el anexo I del presente pliego.

2.2.- GUÍA DE RETORNO - RODAMIENTOS

Es la guía por donde rueda la cadena y que permiten la inversión de la cadena de peldaños.

El deterioro de la cadena de peldaños debido al paso del tiempo, el uso y la acción de agentes externos, genera un desgaste de la guía de retorno, con el consecuente deterioro del confort de uso.

La nueva guía de retorno a colocar, así como los elementos auxiliares para el correcto montaje de la misma deberán ser compatibles con las características de la escalera mecánica a intervenir y que están recogidas en el anexo I del presente pliego.

3.- TRABAJOS A EJECUTAR

En el tramo de subida de la escalera larga que une las calles Dario de Regoyos y Pintor Berrueta se deberá retirar la cadena de peldaños existente en mal estado para, seguidamente, suministrar e instalar la nueva cadena de peldaños, así como todos aquellos materiales auxiliares necesarios para el correcto montaje de ésta, ajustando posteriormente el conjunto para su correcto funcionamiento.

Por otro lado, el mal estado de la cadena de peldaños está provocando el desgaste de la guía de retorno, previéndose que pueda ser necesario sustituir los rodamientos de la misma. Estos trabajos únicamente se ejecutarán y abonarán en caso de verificarse, una vez desmontada la cadena de peldaños, el deterioro de la mencionada guía y las implicaciones que esto pudiera tener en el correcto funcionamiento de la escalera mecánica.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)

Proposatutako unitate edo elementu bakoitzaren prezioan sartzen dira gastu orokor guztiak, garraiatzeko eta zamalanetarako gastuak, probak eta entseguak, material osagarrien higadura, zeharkako kostuak, zergak, eskubideak, obra zibila, halakorik bada, eta abar; hau da, instalatzeko lekuan materiala hornitu, muntatu eta abian jartzeko behar diren jarduera guztiak.

Horrez gain, unitate bakoitzaren prezioan sartzen dira sortutako hondakinen ondoriozko gastu guztiak, bai eta langileen segurtasunari eta osasunari buruzko guztiak.

En los precios de cada unidad o elementos propuestos se incluyen todos los gastos generales, gastos de transporte, carga y descarga, pruebas y ensayos, desgaste de materiales auxiliares, costes indirectos, impuestos, derechos, obra civil si la hubiere, etc., es decir, todas las actividades necesarias hasta la recepción del suministro, montaje y puesta en marcha del material en el lugar de instalación.

Asimismo, dentro de los precios de cada unidad se encuentran incluidos todos los costes derivados que pudieran generarse de la gestión de los residuos generados o los correspondientes a la seguridad y salud de los trabajadores.

4.- ZIURTAGIRIAK ETA HOMOLOGAZIOAK

Kontratu honen xede den ekipamendua osatzen duten zati, pieza, elementu eta abar guztiek aplikatzekoak diren arau eta erregelamenduetan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta dagozkien homologazio-ziurtagiriak eduki.

Elementuen iraunkortasuna eta erabiltzaileen segurtasuna bermatze aldera, plegu honetan sartutako produktu eta prozesu guztiek 2001/95/EE zuzentarauaren araberako ziurtagiria izan beharko dute, eta aparatu horientzako homologazioa izango dute. Ezaugarriak plegu honen I. eranskinean jaso dira.

4.- CERTIFICADOS Y HOMOLOGACIONES

Todas y cada una de las partes, piezas, elementos, etc. de que se compone el equipamiento objeto del presente contrato, deberán cumplir los requisitos establecidos en las normas y reglamentos que le sean de aplicación, y contar con los respectivos certificados de homologación.

Con el fin de garantizar la durabilidad de los elementos y la seguridad para los usuarios, todos los productos y procesos que se incluyen en el presente pliego deberán estar certificados según directiva 2001/95/CE, y con homologación para estos aparatos, cuyas características se definen en el anexo I del presente pliego.

5.- INSTALATZEA ETA MUNTATZEA

Enpresa esleipendunak teknikari bat izendatuko du instalatu beharreko elementuak muntatzeko lanak zuzentzeko.

Enpresa esleipenduna arduratuko da ekipamendua instalatu eta muntatzearen ondorioz ukituak izan daitezkeen eskailera mekanikoko elementuak identifikatzeaz, eta elementu horietan sortzen diren kalte eta galeren erantzule izango da.

Kaltetutako elementuen ordez, jarduketaren aurretik zeudenen ahalik eta antzekoenak jarriko dira, merkatuak eskaintzen dituen aukeren barruan.

Enpresa esleipenduna arduratuko da ekipamenduak sendotasuna, egonkortasuna eta segurtasuna bermatzeko behar diren baldintzak bete ditzan; horretarako, kontuan hartuko dira kokaleku bakoitzaren gune zehatzaren kalitatea eta trinkotasuna.

Esleipendunak hondakin guztiak kenduko ditu lanerako guneetatik (balio ez duten materialak eta/edo akastunak, erabilitako bilgarriak eta abar).

5.- INSTALACIÓN Y MONTAJE

La empresa adjudicataria designará un técnico que se encargará de la dirección de los trabajos de montaje de los diferentes elementos a instalar.

La empresa adjudicataria será responsable de identificar los posibles elementos de la escalera mecánica que puedan verse afectados con motivo de la instalación y montaje del equipamiento y responderá de los daños y perjuicios que se generen en ellos.

La reposición de los elementos dañados será lo más similar posible, dentro de las opciones que ofrezca el mercado, a los existentes antes de la actuación.

La empresa adjudicataria será la responsable de que el equipamiento reúna las condiciones necesarias que garanticen su solidez, estabilidad y seguridad; teniendo en cuenta la calidad y consistencia del lugar de implantación.

El adjudicatario retirará de las zonas de trabajo la totalidad de los restos de materiales inservibles y/o defectuosos, embalajes empleados, etc.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)

6.- HARRERA AKTA

Udala hornidurarekin ados dagoela adierazten duenean, harrera-akta sinatuko da, SPKLren 210. artikuluan araututakoaren arabera.

Hornidura eta instalazioa zuzenak badira, kontratuaren arduradunak hornitutakoaren harrera egingo du (harrera-akta sinatuta), eta orduan hasiko da kontratu hau arautzen duen administrazio-klausula berezien pleguan jasotako bermealdia.

Bestela, esleipendunak 15 egun naturaleko epea izango du hautemandako akatsak konpontzeko.

6.- RECEPCIÓN DE CONFORMIDAD

A la recepción de conformidad del suministro por parte del Ayuntamiento, se procederá a la firma del Acta de Recepción a la que se refiere el art. 210 de la LCSP.

Si el suministro e instalación es satisfactorio, el Responsable del Contrato dará por recibido el suministro (mediante el Acta de Recepción), comenzando entonces el plazo de garantía indicado en el PCAP que rige el presente contrato.

En caso contrario, el adjudicatario dispondrá de 15 días naturales para solventar los defectos detectados.

7.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Enpresa esleipendunak baldintza teknikoen plegu honetan zehaztutako lan guztiak egiteko behar diren langileak izan beharko ditu uneoro, eta baldintza egokietan. Enpresa esleipendunak ezin izango du langilerik ez duelako aitzakiarik jarri kontratatutako zerbitzuak bertan behera utzi edo atzeratzeko, eta zerbitzuak egiteko behar den guztia izan beharko du uneoro.

Enpresa esleipendunak eduki beharreko langileek kontratuaren xede diren lanetan eskatzen den kualifikazioa eta esperientzia aitortua izan beharko dute.

Hauek dira elementuak hornitu eta instalatzeko gutxieneko bitartekoak:

- Zerbitzuburu bat: kontratua kudeatzeaz arduratuko da, lanak ezarrita, zuzenduta, zainduta eta egiten lagunduta. Gainera, enpresa ordezkatuko du Irungo Udalaren aurrean, eta aitzakiarik eta atzerapenik gabe agertu beharko du erakunde horrek hala errekeritzen dionean.

- Konponketarako lantaldea: konponketarako bi teknikarik osatuko dute, lana gauzatzeko dagozkien beharrezko ibilgailu, bitarteko tekniko eta materialekin.

- Doitze eta kontroleko teknikari bat: instalatutako elementu guztiak programatuko ditu, eta doikuntza elektronikoa eta sinkronizazioa egingo ditu.

7.- MEDIOS HUMANOS Y MATERIALES

La empresa adjudicataria deberá disponer en todo momento del personal necesario en número y condiciones para efectuar todos los trabajos especificados en el presente Pliego de Prescripciones técnicas. La empresa adjudicataria no podrá pretextar la falta de personal para suspender o retrasar los servicios contratados debiendo disponer en todo momento de lo necesario para su ejecución.

El personal a disponer por la empresa adjudicataria deberá tener la cualificación requerida y reconocida experiencia en la realización de los trabajos objeto del contrato.

Se determina como medios mínimos para la realización de la instalación del suministro:

- 1 Jefe de Servicio: Que se encargará de la gestión del contrato, estableciendo, dirigiendo, vigilando y apoyando en la realización de los trabajos. Además, será la persona que representará a la empresa adjudicataria ante el Ayuntamiento de Irun, y que asistirá, sin excusa, ni demora, a los requerimientos efectuados por dicho organismo.

- 1 Equipo de Reparación: Que estará formado por dos técnicos de reparación, con sus correspondientes vehículos, medios técnicos y materiales para la ejecución del trabajo.

- 1 Técnico de Regulación y Control: Que se encargará de programar todos los elementos instalados y realizar la puesta a punto de electrónica y sincronización.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)

8.- ESLEIPENDUNAREN OBLIGAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNA

8.1.- Araudiaren inguruko konpromisoa

Nahitaez bete beharko dira araudi tekniko eta legezko tekniko guztiak eta segurtasun eta higieneko araudi guztiak, baita hornitu beharreko ekipamenduaren ezaugarriengatik aplikagarri izan daitekeen guztia ere, eta ondasunak behar bezala homologatuta eta funtzionamendu-egoera onean entregatu beharko dira.

Ekipamenduak EEko eta Espainiako eskailera mekanikoen inguruko indarreko araudi guztiak bete behar ditu.

8.2- Entregatzeko eta instalatzeko konpromisoa

Administrazio-klausula partikularren pleguan ezarritakoa izango da entregatzeko eta instalatzeko epea.

Kontratu honen xede den ekipamendua entregatzeko eta instalatzeko lekua esku hartuko den eskailera mekanikoaren kokalekua izango da. Bertan sartzen da produktuak kargatzea, deskargatzea, manipulatzea eta instalatzea, eta erabat berrikustea muntatu ondoren; akatsak edo narriadurak 15 egun natural baino lehen zuzenduko dira.

8.3- Bermealdian laguntza teknikoa eta saldu osteko zerbitzua emateko konpromisoa

Kontratuaren bermealdian, esleipendunak laguntza teknikoa eta saldu osteko zerbitzua eskaini beharko ditu, haren eskaintzan adierazitako baldintzetan.

Esleipendunak konpromisoa hartzen du bermealdian, telefonozko laguntza tekniko minimo bat eskainiko duela gorabeherak eta estaldura teknikoa jasotzeko, urteko 365 egunetan eta 24 orduetan.

Horretarako, telefono-zenbaki bat eta posta elektronikoaren helbide bat emango ditu esleipendunak, hornitu eta instalatu dituen produktuen inguruan gertatzen diren gorabeherak jakinarazi ahal izateko.

Gainera, kontratuaren bermealdian, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du sistemak matxuratuz gero gehienez ere 24 ordutan erantzungo duela, jakinarazpena egiten denetik, eta konponketa funtzionala 48 ordutik beherakoa izango dela.

8.- OBLIGACIONES Y RESPONSABILIDAD DEL ADJUDICATARIO

8.1- Compromiso sobre la reglamentación

Será de obligado cumplimiento toda la normativa de carácter técnico, técnico legal y de seguridad e higiene, así como toda la que pueda ser de aplicación por las características del equipamiento a suministrar, debiendo entregarse los bienes debidamente homologados y en perfecto estado de funcionamiento.

El equipamiento deberá cumplir toda la normativa CE y española vigente aplicable a escaleras mecánicas.

8.2- Compromiso de entrega e instalación

El plazo de entrega e instalación será el establecido en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP).

El lugar de la entrega e instalación del equipamiento objeto del presente contrato se llevará a cabo en la ubicación de la escalera mecánica objeto de intervención. Incluirá la carga, descarga, manipulación e instalación de los productos y su revisión total una vez finalizado su montaje, procediendo a subsanar las faltas o deterioros en un plazo inferior a 15 días naturales.

8.3- Compromiso sobre asistencia técnica y servicio postventa durante el periodo de garantía del contrato

Durante el periodo de garantía del contrato, el adjudicatario habrá de prestar la asistencia técnica y servicio postventa en las condiciones señaladas en su oferta.

El adjudicatario se compromete a ofrecer, durante el periodo de garantía ofertado, un soporte técnico telefónico mínimo de asistencia, para la recepción de incidencias y cobertura técnica, durante las 24 horas y 365 días del año.

A tal fin, el adjudicatario proporcionará un número de teléfono y dirección de correo electrónico al que poder comunicar las incidencias en relación a los productos suministrados y su instalación.

Además, la empresa adjudicataria se compromete, durante el periodo de garantía del contrato, a que el tiempo de respuesta ante posibles averías de los sistemas no supere en ningún caso las 24 horas desde el momento en que se realice la notificación, y a que el tiempo de resolución funcional sea inferior a 48 horas.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)

Kontratuaren bermealdian, esleipendunak osagai kaltetuak edo akastunak konpondu egin beharko ditu, errua instalatzailearena, hornitzailearena edo fabrikatzailearena baldin bada, eta hori nahikoa ez bada, aldatu egin beharko du hornitutako materiala.

Konpontzeko ezarritako epearen barruan birjarriko da produktua, edo, eskura ez badu, 5 egun baino gutxiagoko epean, konponketa funtzionalerako zehaztutakoa amaitzen denetik zenbatzen hasita, ezarritako epean egitea ezinezkoa dela idatziz adierazi ondoren.

Konponketa- eta/edo ordezkapen-prozesua enpresa esleipenduneko langileek egingo dute. Langile horiek kaltetutako materiala dagoen lekura joan beharko dute, erantzuteko epearen barruan.

Erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien sortuz egingo dira elementuen konponketak eta/edo ordezkapenak, eta ahalik eta eten gutxien eraginez esku hartu beharreko ekipamenduak ematen duen zerbitzuan.

Esleipendunak ordezko piezak gutxienez 10 urtetan (bermealdia barne) izango dituela bermatuko du, mantentzeko eta/edo hondatutako osagaiak konpontzeko.

8.4- Lan-alorreko obligazioak

Enpresa esleipendunak behar bezala aseguratuta edukiko ditu bere kargu dituen langileak, Lan Zuzenbideari eta Gizarte Segurantzari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

8.5- Langileen segurtasuna

Enpresa esleipenduna izango da bere langileen segurtasunaren erantzulea dagokion kontratuari lotutako lanak egitean. Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea eta segurtasun eta osasun alorrean indarrean dagoen araudia beteko direla ziurtatzeko, enpresa esleipendunak bere arriskuen ebaluazioa egina izango du. Langileen segurtasuna eta osasuna ziurtatzeko, bereena, autonomoena nahiz azpikontrata daitezkeen beste enpresetakoena, prebentzioaren alorrean hartu beharreko neurriak islatuko dira plan horretan. Langileek laneko uniformeak izango dituzte, eta enpresaren identifikazio-ikurra eramango dute.

8.6- Hirugarrenen segurtasuna

Enpresa esleipendunak izango du hirugarrenek jasandako edozein istripuren erantzukizun osoa, istripu horiek agindutako lanak egiteagatik edo gaizki egiteagatik gertatu badira.

Durante el periodo de garantía del contrato, el adjudicatario estará obligado a la reparación de los componentes dañados o defectuosos por causas imputables al instalador, suministrador o al fabricante, y si esto no fuera suficiente, a la sustitución del material suministrado.

La reposición del producto se realizará dentro del tiempo de resolución establecido o, de no tenerlo en plazo, en un periodo inferior a 5 días contados desde la finalización del definido para la resolución funcional, una vez motivada por escrito la imposibilidad de realizarla en el periodo establecido.

El proceso de reparación y/o sustitución se realizará por el personal del adjudicatario, quién se deberá personar en el lugar donde se encuentre el material dañado, dentro del plazo de respuesta.

Las reparaciones y/o sustituciones de los distintos elementos serán realizadas de forma que causen las menores molestias posibles a los usuarios, y se minimice la posible discontinuidad del servicio prestado por el equipamiento a intervenir.

El adjudicatario garantizará la disponibilidad de piezas de recambio durante al menos 10 años (incluida la garantía) para realizar el mantenimiento y/o la reparación de los componentes deteriorados.

8.4- Obligaciones en materia laboral

La empresa adjudicataria deberá tener debidamente asegurado a todo el personal a su cargo, según la vigente normativa sobre Derecho del Trabajo y Seguridad Social.

8.5- Seguridad de los trabajadores

La empresa adjudicataria será enteramente responsable de la seguridad de sus trabajadores en el desarrollo de los trabajos vinculados al correspondiente contrato. Para asegurar el cumplimiento de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y normativa vigente en materia de seguridad y salud, la empresa adjudicataria deberá tener realizado su correspondiente evaluación de riesgos en el que se reflejen las medidas a adoptar de índole preventiva para garantizar la seguridad y salud de los trabajadores, tanto propios, como autónomos y a los de otras empresas que puedan subcontratarse. El personal estará provistos ropa de trabajo uniformada con identificativo de la empresa.

8.6- Seguridad de terceros

La empresa adjudicataria será enteramente responsable de cualquier accidente sufrido por terceros, derivado de la ejecución de los trabajos contratados o de su incorrecta ejecución.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)

8.7- Udalaren edo hirugarrenen ondasunen kontrako kalteak

Enpresa esleipenduna izango da Udalaren edo hirugarrenen ondasun materialetan gerta daitezkeen kalteen erantzulea, kalte horiek kontratatutako lanen ondorioz sortu badira.

8.8- Aseguruak

Arestian aipaturiko erantzukizun horiek estaltzeko, eta enpresak duen langile guztiei asegurua egiteko obligaziotik kanpo, enpresak aseguru poliza bat kontratatu beharko du erantzukizun zibileko kalteen aurrean erantzun ahal izateko Kontratuaren bizitza osoan.

9.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko araubidea bete beharra dauka. Araubide hori euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hura garatzen duen araudiak arautzen dute, eta baita Irungo Udalak bere eskumenen barruan xedatutakoak ere. Horregatik, zerbitzua emateko hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Nolanahi ere, beti errespetatuko dira herritarren hizkuntza-eskubideak.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktogramen bidez egingo dira.

Piktograma erabili ezin bada, bi hizkuntzetan idatziko dira mezuak. Aurretik, Administrazioarekin adostuko dira.

8.7- Daños a bienes materiales municipales o de terceros

La empresa adjudicataria será responsable de los desperfectos que, siendo imputables a la ejecución de los trabajos contratados, puedan producirse a bienes materiales municipales o de terceros.

8.8- Seguros

A los efectos de cubrir las anteriores responsabilidades y con independencia de las obligaciones de la empresa de asegurar a todo su personal, la empresa deberá contar con póliza de seguros frente a daños de responsabilidad civil en vigor en toda la vida del Contrato.

9.- CRITERIOS LINGÜISTICOS

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982 de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, así como por lo dispuesto por el Ayuntamiento de Irun en el ejercicio de sus competencias. Es por ello que las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

En todo caso, siempre se respetarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante pictogramas.

Cuando no pueda utilizarse un pictograma, los mensajes se redactarán en los dos idiomas. Previamente se consensuarán con la Administración.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)

I Eranskina *ARTIAKO* SKAILERA MEKANIKOEN EZAUGARRIAK

Anexo I CARACTERISTICAS ESCALERAS MECANICAS ARTIA

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA:**	OBRA, MANTENTZE ETA AZPIEGITURA ARLOA / ÁREA DE OBRAS, MANTENIMIENTO E INFRAESTRUCTURAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE:**	2024ZAUN0121

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 29XK-GK2K-HE9C-N5JT

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (10/03/2025 10:54 CET)